

Politika orokorrari buruzko eztabaida
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAREN ADIERAZPENA BATZAR NAGUSIETAN

Markel Olano Arrese

Donostia, 2009ko Irailak 17



**Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**

POLITIKA OROKORREKO EZTABAIDA
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAREN HITZALDIA
Markel Olano Arrese
Donostia, 2009ko irailaren 17a

SARRERA

Batzar Nagusietako lehendakari andrea, diputatu jaun-andreak, batzarkide jaun-andreak eta osoko bilkura honetara gerturatu zareten guztioi egun on eta mila esker zuen parte hartzeagatik.

Dagoeneko legealdi honen ibilbidearen erdia baino zerbait gehiago egin dugu. Osoko bilkura hau une aproposa da guztion artean hausnarketa burutzeko; orain artean egindakoaren balantze bat egin eta eskuartean ditugun erronkei nola heldu aztertzeke.

Osoko bilkura honek hiru helburu zehatz ditu:

1. Gure lanaren eta emaitzen berri ematea gipuzkoarrei.
2. Orain arteko ibilbidea aztertu eta ebaluatzea.
3. Aurrerantzean jarraituko dugun norabidea zehaztuta uztea.

Ez nator eztabaida honetara nire hitzaldia irakurtzera soilik. Entzutera nator. Ekarpenak egitera eta jasotzera. Guztion arteko eztabaidak azken emaitza aberatsago egingo du. Hori da nire jarrera.

Nire hitzaldiak lau zati izango ditu:

Lehenik eta behin, Gipuzkoaren egoeraren argazki orokor bat erakutsi nahi nuke abiapuntu moduan.

Bigarrenik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa estrategikoaren berri emango dut; legealdi honetan abian jarri den kultura politikoaren eta gobernantza ereduaren emaitzak aztertu nahi nituzke Batzar Nagusi hauetan.

Hirugarrenik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketan zentratuko naiz bi atal bereiziz:

- Alde batetik, gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoaren aurrean dugun jokabidea.

- Bestetik, erronka estrategiko nagusien garapenaren berri ematea.

Laugarren eta azken zatian, Euskal Herriko eta Gipuzkoako egoera politiko orokorraren azterketa egingo dut; diagnostikoa burutu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak alor politikoan jorratuko dituen ardatz nagusiak ezartzen ahaleginduko naiz.

1. GIPUZKOAREN ARGAZKIA

Gipuzkoa lurralde sendoa da. Hori erakusten dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Bulego Estrategikoak eginiko azterketa interesgarri baten datuek. Gipuzkoak 700.000 biztanle ditu eta hurrengo bi hamarkadatan ez da espero kopuru hau asko aldatzea.

Etorkinen kopuruak gora egingo du datozen urteotan, baina gure adin piramidea kontutan hartuta ez da aldaketa azpimarragarririk espero. Azken hamarkadan Gipuzkoarron biztanleria % 1,55 hazi da. Azken urte hauetan lortu den garapena bitarteko, bizitza esperantzak gora egin du eta dagoeneko 65 urtetik gorako pertsonen biztanleria guztiaren % 18,4 osatzen dute. Errealitate honek eragin zuzena izango du gure herrigintzan.

Etorkinek gora egin dute. Gaur egun Gipuzkoako biztanleriaren % 4 etorkina da eta kopuru hau gorantz doa. Hala ere, une honetan Gipuzkoak duen etorkinen kopuruak integrazioa eta kultura ezberdinen arteko komunikazioa era proaktiboan lantzeko baldintzak eskaintzen ditu.

Gero aztertuko dugun koiuntura ekonomikoa alde batera utzita, Gipuzkoak egitura ekonomiko sendoa du. Azken hamarkadan, % 24,2 igo da gure lurraldean lanean ari direnen kopurua. Urte hauetan, Gipuzkoako etxe bakoitzeko errentak, batz bestea, ia % 6ko igoera izan du.

Gipuzkoaren egitura ekonomikoak sektoreen arteko oreka erakusten du. Industriaren pisua % 33,6 da; Euskal Autonomia Erkidegokoa aldiz % 29.

Enpresa ekimenerako gaitasun handia du gure lurraldeak. Datu bat eskaintzearen, 1997-2005 epealdian Gipuzkoako establezimendu ekonomikoen kopurua % 48 igo zen.

Ikerketa+Garapen kontzeptuan, Barne Produktu Gordinaren % 2 ingurua inbertitzen dugu. Zenbaki hau Euskal Erkidego Autonomoan % 1,65 da eta Espainiakoa % 1,27.

Gipuzkoarron ongizatearen beste erakusleeta bat osasun alorra da. Gipuzkoan, arlo honetan, pertsona bakoitzeko 2.000 euro baino gehiago erabiltzen da. Gipuzkoan biztanleko 350 euro erabiltzen da gizarte politiketan eta pobreziarako 77 euro.

Gizarte kohesioari dagokionean, bada azpimarratu nahiko nukeen beste datu bat. Aukeren berdintasuna. Une honetan lan egiten duten pertsonetatik % 55 gizonezkoak dira eta % 45 emakumezkoak. Azken hamarkadan gizonezkoen emplegua % 6 igo da eta emakumezkoena % 48. Berdintasunaren alorrean asko dago oraindik egiteko baina, zorionez, aurrerapauso garrantzizkoak ere eman dira.

Datu hauek lurralde orekatu bat erakusten dute. Ekonomikoki lehiakorra eta ongizate maila altua duena. Uste dut, komenigarria dela Gipuzkoaren ikuspegi orokor bat izatea gure eztabaidaren oinarrian zer dagoen ondo kokatzeko.

2. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KUDEAKETA ESTRATEGIKOA

Datozen minutuotan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa estrategikoaz arituko naiz. Aldundiak legegaldi hasieran 2007-2011 kudeaketa plana burutu zuen. Kudeaketa egitasmo horretan ezartzen dira legegaldi honetarako helburuak eta helburu horiek aurrera ateratzeko ekintzak.

Helburu eta ekintza horien oinarrian kultura politiko berria kokatzen da. Ikuspegi honek gobernantza eredu berri baten aldeko apustua egiten du hiru oinarri bereganatuz:

- Erakunde publikoen arteko lidergo partekatua.
- Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak eta,
- Herritarren partaidetza herri politiketan.

Hiru oinarri hauek dira gure politika egiteko ereduaren ardatzak. Zergatik egin dugu kultura politiko berri baten aldeko apustua?

Alde batetik, Gipuzkoan daukagun zatiketak lankidetzak eskatzen duelako eta bestetik, XXI. mendeko gizarte konplexuetan, erakunde publikoek gizarteko eragile eta sare zabalagoekin lan egitea ezinbesteko dutelako.

Herritarraren eta politikarien arteko gehiegizko distantzia gaitz larria da demokraziarentzat. Kultura politiko berria autokritika sakon baten ondorioa da. Politika egiteko jarrera berri baten adierazle.

Euskal Erkidego Autonomoan egoera politikoa zeharo aldatu da. Martxoko hauteskunderen ondoren, Partidu Sozialistak eta Partidu Popularrak ezarritako estrategiaren ondorioz Eusko Jaurlaritzan sozialistek dihardute gobernu ariketan.

Aldaketa honen aurrean Aldundiak jarrera garbia hartu du hasiera-hasieratik; lurraldeko erronka estrategikoak aurrera ateratzeko lankidetzak eskaini dio Eusko Jaurlaritza berriari.

Erakundeak behartuta gaude herri politiketan lankidetzak estuak ezartzera. Denbora gutxi galduko dut alferrikako sesio eta eztabaida antzuetan. Arduraz eta zorrotz jokatzeko unea da eta, batez ere, talde lanean aritzekoa.

Erakunde publikoen lidergo partekatuaren haritik, Gipuzkoako udalekin harremanak geroz eta estuagoak dira. Lankidetzak horretan sinesten dugulako, bultzatu dugu hain zuzen ere, Batzar Nagusi hauetan Udal Finantziarioaren Foru Fondoaren murrizketari irtenbide bat emateko proposamena.

Udalekin lankidetzak garatu eta harremanak estutzeko ezinbestekoa da herriak ezagutzea. Herriak ezagutu, herritarrekin hitz egin, herri ordezkariekin gaiak joratu eta lankidetzak ezarri. Aurtengo urtean ere herri ugaritan izan naiz eta legealdia amaitzerako Gipuzkoako herri guztiak bisitatu izana espero dut. Elkarlana hasiera-hasieratik ezartzen denean azken emaitza askoz ere hobea da.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi mugaz gaindiko lana. Euskal Eurohiriaren Garapenerako Agentzian mugikortasunaren eta ingurugiroaren lan taldeak martxan jarri ditugu. Bitartean, Pirinio Atlantikoetako erakundeekin lankidetzak aurrera doa. Datorren urtera begira beste ekimen baten berri ere eman nahi nuke: Gipuzkoako Foru Aldundiak egitasmo berezi bat jarriko du martxan euskal diasporarekin harremanak sendotzeko. Harreman horiek kultura, gizarte eta ekonomiaren alorretan zentratuko dira.

Batzar Nagusi hauetan burutu den eztabaida Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat aberasgarria izan da. 110 ebazpen proposamen onartu dira, 12 Foru Arau berri tramitatu dira eta Aldundiaren presentzia Batzar Nagusi hauetan etengabekoa izan da.

Gipuzkoako Foru Aldundia bultzatzen ari den kultura politiko eta gobernantza eredu berriaren baitan lankidetzaren publiko pribatua bultzatzen ari gara. Zalantzarik gabe, GIPUZKOA AURRERA da eredu honen adibiderik argiena.

GIPUZKOA AURRERAZ asko hitz egin da azken hilabeteotan. Gehienetan, talde honetan parte hartu beharko luketen kideez eztabaida pizteko; beste batzuetan barne eztabaidak, eskumenak edota bere eraginkortasun maila izan dira hizpide. GIPUZKOA AURRERA lankidetzaren eredu guztietara irekita dago. Baina, GIPUZKOA AURRERAK eraginkorra izan behar du.

Hitzaldi hau aprobetxatu nahi nuke gai honen inguruan alderdi politikoaren lankidetzaren eskatzeko. Prozesu konplexua da, denbora behar du eta bereziki, eztabaida politikoetatik kanpo egon behar du; horretarako, guztien laguntza premiazkoa da. Osoko bilkura honetatik kanpo alderdi politiko guztiekin bilera batzuk egitea gustatuko litzaidake gai hau soseguz landu eta gure artean izan ditzakegun ezberdintasunak lantzeko.

Gobernantza eredu eta kultura politiko berriaren hirugarren zutabea herritarren partaidetza da. Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarren partaidetza bultzatzeko ekimen ugari jarri ditu martxan.

Une honetan, esperientzia pilotoa garatzen ari gara, herritarren partaidetzaren esperientziak burutzen jarraitzen dugu, eta martxan jarri ditugun formazio ekimenak arrakasta handia izan dute.

Jauzi kualitatibo bat emateko ordua iritsi da. Gipuzkoak herritarren partaidetza ziurtatuko duen egitura berri bat behar du. Aurreratzen dizuet irailaren amaieran Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarren partaidetzaren foru arau berri bat egiteko prozesua martxan jarriko duela. Prozesu horrek hiru zutabe izango ditu: herritarren eta elkarten ekarpenak, gainontzeko erakunde eta adituenak eta alderdi politikoarenak. Aipatu bezala, prozesu hau irailaren amaieran aurkeztuko dugu eta martxoaren hasieran proposamen bat ekarriko dugu Batzar Nagusi hauetara guztion, artean eztabaidatu eta ahalik eta adostasunik zabalarekin onartzeko arau berria.

Lankidetzaren oinarritutako gobernantza eredu hau ez da eguneroko gaien kudeaketara mugatzen. Gipuzkoako Foru Aldundiko bulego estrategikoak G+20 prozesua martxan jarri du; epe ertain eta luzerako hausnarketak, oraina aberastu eta dinamizatzeko. Prozesu interesgarri honek hiru fase izango ditu: errealitatearen diagnostikoa, etorkizuneko erronka eta eszenatoki posibleak identifikatu eta epe luzerako estrategiak definitu. Lehenengo fasea orain bukatzean gaude, kontraste ugari egin da, erakundeetan, Batzar Nagusietan, hainbat gizarte eragileekin eta abar, eta hil honen 24an burutuko dugu azterketa honen emaitzen aurkezpena.

Kultura politiko eta gobernantza eredu berri honetan Batzar Nagusietako taldeetako ordezkariekin burutzen ari garen lana ere azpimarratu nahi dut. Iazko ikasturtean Gipuzkoako Kultura Politikoaren azterketa egin genuen. Guztion artean ondorio interesgarriak atera genituen.

Uste dut, ezinbestekoa dela herritarrek politikarekiko eta erakundeekiko dituzten jarrera eta balioak aztertzea. Azterketa hori bitarteko, alderdi ezberdinen arteko komunikazioa lantzea da helburua.

Nolanahi den ere, ezin dut Kultura politikoaren ikerketa hartako emaitzen aurrean beste alde batera begiratu. Ez Obama ni baino askoz ezagunagoa izateak asko kezkatzen nauelako; herritarrak politikariekiko, erakundeekiko mesfidati direlako; jende gehiegi dagoelako gure zintzotasuna zalantzan jartzen duena eta gure arteko eztabaida antzuak gure kulturaren parte bilakatu ditugulako.

Ez dugu herritarrekin konektatzen. Autokritika zorrotza egiteko ordua iritsi da herritarren aurrean. Zentzu honetan, Gipuzkoako Foru Aldunditik ekimen baten berri eman nahi dizuet. Datorren urritik aurrera GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE HERRIAN ekimena martxan jarriko dugu. Ekimen honen helburua Gipuzkoako bailara eta herrietan Diputatu Nagusiak Aldundiaren kudeaketaren berri ematea da. Ekarpenak eta kritikak zuzenean entzun nahi ditut.

3. KRISIAK SORTUTAKO EGOERA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ERANTZUNA

Gipuzkoako egoera ekonomikoaren azken adierazleak gogoan hartzen baditugu, ohartuko gara badela arrazoi sendorik egoeraren larriaz jabetzeko: urtearen lehen sei hilabeteetan zerga bilketa % 24 murriztu da; industria ekoizpena, era berean, % 24 murriztu da batez beste aldi horretan; gure esportazioak % 22,2 gutxitu dira ekaina bitartean metatutako kopuruetan; energiaren kontsumoa beheratu egin da; eta langabezia % 9tik gora joan zen joan den ekainean, Europar Batasunaren batez bestekoaren hurbil.

Gipuzkoako ekonomiaren bilakaera estuki loturik dago, noski, nazioarteko ekonomiaren gorabehereri, batez ere, Espainiako eta Europako merkatuen jokabideari: aurten izango den hazkunde negatiboak nahitaez eragingo dio Gipuzkoako produkzioaren kanpo eskaerari.

Gipuzkoako lan merkatuaren egoera benetan kezagarria da une honetan, nahiz Euskal Herri osoaren aila berdinean egon eta euroaren gunearen batez bestekoan egon; nahiz Estatuko langabezia tasaren erdian egon.

Gipuzkoako Enplegu Zerbitzu Publikoak abuztuaren 31n emandako datuen arabera, Gipuzkoan 36.600 pertsona dira langabe. Aurtengo bigarren hiruhilekoan langabetuen kopurua handitu ez bada ere, 2008ko uztailaz geroztik lanpostu bat eskatu dutenen zerrendan 11.700 pertsona gehiago daude, batez ere 2008ko abendutik 2009ko urtarrila bitartean erregistratutakoak.

Pertsona aktiboek dagokienez, Gizarte Segurantzako erregimen guztietan afiliazio datuek azaltzen digute azken urte betean 11.500 lanpostu suntsitu direla Gipuzkoan (9.500 soldatapekoak eta 2.000 autonomoak); horietatik, 9.000 eta gehiago 2008ko azarotik 2009ko otsaila bitartean gertatu ziren.

Emandako kopuru horiez gain, aurtengo urtarrietik ekaina bitartean enplegua erregulatzeko 605 espediente onartu dira Gipuzkoan, % 90 inguru industriaren sektorean, eta ondorioz 13.675 lan kontratu eten dira hiru eta sei hilabete bitarteko aldi baterako.

Industria sektorea jo du gogorkien krisiak, arestian aipatu ditugun erregulazio espediente guztiak pairatu baititu, eta abuztuan 9.500 langabetu zituen.

Industria sektorea jasaten ari den hondamena baino beranduxeago, zerbitzuen sektorea ere pairatzen ari da joan den martxoaz geroztik eskaeraren beheraldia, batik bat garraioetan, salgaien banaketan, etxe salmentako zerbitzuetan, enpresen zerbitzuetan, publizitate zerbitzuetan eta, maila apalagoan, turismo sektorean.

Krisiak bete-betean jo gaitu, beharbada beste batzuk baino geroago, baina besteok bezain gordin; tinkotu egin beharko dugu, beraz, orain arte egindako lana, atzeralditik ateratzen lehenak izan nahi badugu.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jokabidea krisiari aurre egiteko

Gipuzkoako Foru Aldundiak egoera ekonomiko berriari aurre egiteko 2009an egin duen kudeaketa xede nagusi batez albaindua izan da: krisiak pertsonen gainean eta enpresen gainean dituen ondorioak gozatzea.

Egoera berriak aurrez aurre ipini dizkigun zailtasunak gainditzeko erabaki sendoak eman behar izan ditugu aurten: inbertsio politika indartu behar izan dugu 2009ko aurrekontuen bitartez (inoiz izan den handiena); krisiari aurre egiteko zerga arauak aldatu behar izan ditugu; gastu sozialari aurre egiteko dirubide gehigarriak ipini behar izan ditugu.

Pertsonei eta familiei laguntzeko, nabarmendu behar ditugu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan egin ditugun aldaketak, hala nola:

- Zergaren tarifen inflazioa zuzentzea.
- Ondorengoengatiko eta desgaitasunengatiko kenkariak gehitzea.
- Adostasunez lortutako lan harremanetako azken kitatzeei zerga tratamendu onuragarri bat ezartzea.
- Mendekoak zaintzeagatik jasotzen diren prestazio ekonomiko publikoak salbuestea.
- Ohiko etxebizitzagatiko kenkariei eustea, etxea aldatu beharra dagoenean arrazoi pertsonal, laboral edo ekonomikoengatik.
- Etxebizitza aurrezkiko kontuetan, ohiko etxebizitzan egindako inbertsioa gauzatzeko epeak zabaltzea.
- Eta 400 euroko kenkaria lan errenten jasotzaileen kuotan.

Enpresen jarduera ekonomikoa bizkortu eta sustatzeari dagokionez, eman ditugun erabakien xede nagusia izan da enpresen likideziari eustea, enplegua gal ez dadin eta jarduera eteteko prozesuetan sar ez daitezten.

Bide horretan, Sozietateen gaineko Zergaren kenkariak ugaritu egin dira urteko enplegu sorkuntza garbiaren kasuan, eta kenkariak handiagoak izan dira kontratatutako pertsonak lan merkatuan txertatzeko zailtasun bereziko taldeetakoak baldin badira.

Urtarrilean, zerga zorrak automatikoki eta bermerik ezarri gabe geroratzeko arauak eman dira, 90 eguneko epeaz, eta 150.000 euroko mugaz hiruhileroko sortzapena duten zorretan, eta 70.000 euroko mugaz hileroko sortzapena dutenetan.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kasuan, itzulketak hileroko egiteko arauak eta jardunbidea eman ditugu.

Bi urtetik urte betera murriztu dugu kobraezintzat jotzen diren bezeroei jasanarazitako BEZ kuoten kenkariak egin ahal izateko.

Zerga gerorapen jakin batzuetan berandutza interesak murriztu egin dira, eta ekainean erabaki osagarriak eman ditugu zerga betebeharren geroratzea errazteko.

Oro har, eragin handiko neurriak izan dira, eta diruzaintza arazotan diren enpresek kreditua eskuratzeko likidezia bermatuz Eusko Jaurlaritzak eman dituen erabakiekin batera, eraginkortasun handia lortu dugu.

2009ko aurrekontua egoera ekonomiko latz honetara egokiturik itxuratu genuen, ziklo makur honen aurkako tresna gisa, gastu publikoak ahal den eraginkortasunik handiena izan zezan; gure lehentasunak izan dira:

- Azpiegitura inbertsioak, 2008ko aurrekontuaren aldean % 16,7 handitu baitira diru kopuruak; departamentuen inbertsioak, guztira, 379 milioi eurotara iritsi dira, eta kapital transferentziak 110 milioi euro izan dira, % 58,7ko hazkundeaz.
- Aurrekontu finkatuaren inbertsioak, Bidegiren jarduera ere kontuan hartuta, 671 milioi euro izango dira aurten, hau da, % 13,6ko hazkundera 2008ren aldean. Inbertsio ahalegin horrek esan nahi du aurten biztanle bakoitzeko 671 euro erabiliko ditugula.
- Gastu sozialaren esparruan, pentsioak eta beste prestazio sozial batzuk % 34,2 hazi dira aurtengo aurrekontuan, eta gizarte babeserako nahiz sustapenerako gastua, oro har, % 14,6 handitu da, 330 milioi euroraino.
- Lurralde oreka bermatzearen ikuspegitik begiratuta, urteko aurrekontuari Landagipuzkoa 32 programa gaineratu zaio, 1.000 biztanlez beherako udalerrietan azpiegitura, ekipamendu eta oinarritzko zerbitzuen hutsuneak eta beharrak bete ahal izateko.
- Langabeziaren arazoari aurre egin nahirik, udal zerbitzu publikoen jardueretan enplegua sustatzeko programa onartu dugu.

Aurrekontu urtealdia amaitzeko (abuztuan zerga bilketa % 24 beheratu delarik), gure aurrekontua zerga bilketaren errealitatera egokitzea erabaki dugu, beharrezkoak izan diren kredituen berrantolaketa eta atxikipenak eginik. Gure xedea da aurrekontua urteko benetako gastura egokitzea.

Era berean, 2010eko aurrekontua eratzeko onartu ditugun irizpideen indarrez, gastu arrunta nabarmen murriztu beharra daukagu, eta zorra hartzera jo beharko dugu hartutako konpromisoari aurre egiteko eta lurraldearen ongizatea, garapena eta lehiakortasuna ziurtatzeko gai nagusiak bideratzeko.

Berrikuntza arloa dela-eta Gipuzkoako Foru Aldundian funtsezko lau ardatzen inguruan ari gara lanean: a) ikaskuntza emozionala eta soziala, b) ekintzailtza, c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza, eta d) Informazioaren eta komunikazioaren gizartea.

Bide horretan, berrikuntzara emaniko azpiegitura estrategikoak ari gara laguntzen: Goierriko Teknologia Gunea; Tekniker, Lortek eta INGEMA-Matia zentroyen eraikin bereziak; Deustuko Unibertsitateko (Donostiako campusa) eta Mondragon Unibertsitateko berrikuntza eraikinak; nanoGUNE, microGUNE, biomaGUNE eta marGUNE, eta abar.

Politika horiek berariaz bultzatzeko, ez ditugu bakar-bakarrik gastu programak eratu eta artikulatu, baizik, horrekin batera, Sozietateen gaineko Zergari lotutako pizgarri fiskalak egokitu eta indartu ditugu, gure enpresak esparru honetan egiten ari diren ahalegina erraztu eta laguntzeko asmoz.

Begien bistakoa da zerga baliabideak gutxitu egin direla jarduera apaldu den neurri berean, baina herri erakundeok herritarren aurrean dugun erantzukizuna aintzat hartu beharra daukagu, behar diren ekimenak eta ahaleginak bideratzeko. Aurrekontu eta zerga baliabide guzti-guztiak zutitu behar ditugu, eta zorretan sartzea inoiz zentzuzkoa baldin bada, egoera honetan izango da zentzuzkoa, noski. Zentzu horretan ere gure erantzukizun soziala aintzat hartuko dugu.

Zerga politika tresna garrantzuzkoa da, zalantzarik gabe, egoera horri aurre egiteko. Gure ikuspegiz, euskal zerga sistemaren aldaketak adostasun zabal batez egin behar dira, gure erakunde sistemak horretarako ezarriak dituen koordinazio organoetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak jarrera bat dauka, gainerako aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin partekatuko duena, zerga koordinaziorako organoaren barruan. Nolanahi den ere, aurrez aurre dugun krisiaren sakonak behartu egiten gaitu euskal alderdi politikoak gehiengoaren adostasun bat bilatzera.

Foru Aldundiaren helburuen artean dago, baita ere, zerga betebeharrei muzin egiten dietenen kopurua murriztea eta zerga iruzurraren aurka borrokatzea. Horretarako, estrategia zorrotz bat ari gara hedatzen, iruzurraren aurkako borrokan oinarri harturik, zerga kontrolean ari diren langileak eta tresnak zabalduz, foru arauak garatuz, legez kontrako kasuetan zorrozki aplikatuz, eta herritar guztiak esparru honetan jabetun izan daitezzen behar den informazioa zabalduz. Ekintza guztion emaitza izan da 330 milioi euroko zorra atzeman izana 2008an.

Krisiaren aurkako plan proposamena 2010. urterako

Testuinguru honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak plan bat onartu du aste honetan krisi ekonomikoari aurre egiteko, gure lurraldearen biziberritze ekonomiko eta soziala sustatzeko helburuaz. Plan honek jaidura guztiz industrialia du, industriak gure herrialdean duen garrantzia kontuan izanda.

Plan hori gainerako herri erakundeekin elkarlanean eramango dugu aurrera, eta GIPUZKOA AURRERAREN lankidetzaz.

Planak lau jarduera ardatz ditu:

Lehen ardatza: Herrilanetan eta azpiegituretan inbertsioak sustatzea

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreikusitako obra publikoarekin aurrera jarraituko du 2010ean, baina horrez gain, krisiaren aurkako plan honen bitartez, Urretxu eta Bergara bitarteko errepide berriaren lanak aurreratuko ditu, 2010ean 31 milioi euroko inbertsioa eginez, Urretxu-Antzuola zatia egiteko.

Baita ere, Pasaian zirkulazioa bereizteko obra hasiko da, zehazki Gomistegiko sarrerakoa, 2010ean 4 milioi euroko inbertsioa izango duena.

Bigarren ardatza: Lanean hasteko zailtasun bereziak dituzten taldeentzat enplegua sortzea

Gure lehentasunetako bat izan behar da lurraldeko herritar guztiei bizitza duina bermatzea eta bazterketa sozialaren arriskua gutxitzea. 2010erako jarduera hauek antolatu ditugu:

- Autoenplegurako Laguntza Plana eta bazterketa arriskuan dauden pertsonak lan munduan sartzeko programak indartzea.
- Gizatalde baztertuentzako enplegu programak indartzea.
- Lan munduan sartzeko enpresen ekintzailtza errazteko guneak sortzea.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko esparruan, gaitasun profesionalen sistema orokor bat sustatzea.

- Arreta berezia ipini behar diegu, baita ere, lan merkatuan sartzeko arazoak izanik, orain arte enplegu zentro berezietan irtenbideren bat aurkitzen zutenei, krisi ekonomikoaren egoera honen ondorio larriak jasan baitituzte.
- Gazteen enplegua sustatzea, enpresek bizirik irauteko ezartzen ari diren enplegu erregulazioak gehien pairatzen ari baitira.

Hirugarren ardatza: Enpresei laguntzea

Gipuzkoan industria sektoreak sekulako garrantzia du. Industriak Barne Produktu Gordinaren eta enpleguaren % 34 egiten du Gipuzkoan, eta zeharbidezko eragin izugarria dauka beste sektore batzuetan, besteak beste garraioetan eta zerbitzu orokorretan. Beraz, plan honek jaidura guztiz industrialia du eta sektore horren beharkizunei erantzuteko sortua da, batez ere. Ekintza hauek antolatuko ditugu:

- Krisiak bereziki eragindako enpresei zerga zorren gerorapenak eta zatikapenak emateko politikari eustea.
- BEZ itzulketak egiteko prozesuak arintzen jarraitzea.
- Egoera larrian diren enpresen jarduera iraunarazteko behar diren zerga kudeaketako neurri bereziak moldatzea.

Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzeta eta elkarlana sakontzea, behar larrian diren enpresei bermeak edo beste finantzaketa mota batzuk eskaintzeko.

- Krisian diren enpresa liderrak erreskatatu edo berregituratzeko planak egin eta gauzatzea, Euskadik eta Europak dituzten arauen esparruan.

Testuinguru horretan, enpresei laguntzeko programa zehatz hauek ere antolatuko ditugu:

- Enpresa txikietan berrikuntza teknologikoa laguntzeko programa.
- Enpresetan I+G unitateak indartzeko programa.
- Krisian diren enpresen bideragarritasun planak garatzeko programa.
- Merkatu berrietara zabaltzeko programa.

- Sektore estrategikoetan (energia berriztagarriak, biomedikuntza, industria eta mugikortasuna) enpresa proiektuak abiarazteko programa.
- Lanaren kulturaren inguruko sentiberatasun plana.

Laugarren ardatza: Inbertsioa zientzia, teknologia eta berrikuntza azpiegituretan

Gure industria sarea indartu nahi badugu, bi faktore bizkortu behar ditugu: alde batetik, industria eragileen lehiakortasuna hobetu behar da; eta bestetik, etorkizuneko sektoreetan ekimen berriak sortu behar dira. Ondorioz, gure zeregina izango da, baita ere, zientziaren eta teknologiaren sektoreak biziberritzea, sektore estrategiko diren heinean. Zientzia eta teknologia azpiegiturek laguntzeko programa bat abiaraziko dugu.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KUDEAKETA

Datozen lerroetan Aldundian eskuartean ditugun erronka nagusiei errepasso bat egin nahi nuke. Errepasso honek, ezinbestean, gaiak orokorki tratatzera garamatza. Eztabaidan xehetasun handiagoetan sartzeko aukera izango dugu.

Lehenik eta behin, herri politiketarako tresnaren ikuspegitik, Aldundiaren 2007-11 kudeaketa planari buruz zerbait esatea gustatuko litzaidake. Egokitzapen lan batzuk egin ditugu kudeaketa planean. Egoera ekonomikoa dela eta, kudeaketa planean krisiari aurre egitea lehenengo mailan kokatu dugu.

Legealdi erdia pasa ondoren, kudeaketa egitasmoaren exekuzio maila ondo doa. Zalantzarik gabe, gauza asko dago hobetzeko, baina lan egiteko modu hau eraldatzailea izaten ari da hiru arrazoigatik:

- Lehenik eta behin, Gipuzkoako Foru Aldundiak norabide zehatza eta jakina du. Lehentasunak ondo ezarrita daude, herritarrek garbi identifika ditzaten.
- Bigarrenik, kudeaketa planak aurrekontua eta ekintza ezberdinak uztartzen ditu. Honek esan nahi du aurrekontua kudeaketa egitasmoan ezarritako lehentasunetara behartua dagoela. Kudeaketa plan honek departamentuen arteko lankidetzak indartzen ditu. Krisiaren aurka burutu dugun egitasmoa da horren adibiderik argiena.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi bi urte hauetan Aldundiko gobernua osatzen dugun bi alderdion artean sortu den konfidantza eta elkarlanerako konpromezua.

- Hirugarrenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeaketa plan bat ezarri izanak ebaluaketarako aukera ematen du. Dagoeneko herritarrek, bi urte pasa ondoren, nola ebaluatzen gaituzten jakin behar dugu eta horretarako abian da ikerketa bat.

Administrazioaren ikuspegitik Aldundian barne arauen akordio bat sinatu dugu (2009-2011); aurrerapauso handiak eman dira lan osasun eta arriskuen alorrean eta lan eskaintza ezberdinak eraginkortasunez kudeatzen ari gara. Datozen urteetan lanpostuen analisi funtzionalari ekingo diogu. Bestalde, 2008-2011 Foru Administrazioaren Modernizazio Planean ezarritako asmoak betetzen jarraitzen dugu.

Lorpen handia izan da Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza nagusian ISO 14000 ziurtagiria lortzea. Lurraldeko Emergentsia Plana bukatzeaz dago eta 2010ean onartua izango da.

Lurralde osoan Lurreko Telebista Digitala zabaltzeko hitzarmena sinatu zen Eusko Jaurlaritzarekin. Momentu honetan hedapenaren plangintzaren 1. fasea bukatzeaz dago.

Aipatzeko modukoa da baita ere, SUHILTZAILE zerbitzua modernizatu eta bitarteko berriez hornitzeko egiten ari garen ahalegina. SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOA sortu dugu. Helburua, suaren inguruko lanean eta prebentzioan erreferente bat izatea da.

Lurralde oreka

Foru Aldundiaren kudeaketa egitasmoak Lurralde oreka erdigunean kokatzen du. Lurralde oreka garatu dadin hiru estrategia nagusi ezarri genituen legealdi hasieran.

- Lehenik, Gipuzkoako mugikortasun sistema hobetzea.
- Bigarrenik, garapenerako baldintza gutxien dituzten eskualde eta herriei laguntza eskaintzea.
- Hirugarrenik, kultura, gure nortasunaren lekuko, lurralde garapenaren eragile bilakatzea.

Inor gutxik zalantzan jarri dezake dagoeneko apustu hau. Mugikortasuna legealdi honetako ikur garrantzitsuenetakoa da. Foru Aldundiak apustu sendoa egin du mugikortasunaren eta garraio publikoaren alde. Gipuzkoak badu mugikortasunerako eredua. LURRALDEBUS geroz eta erreferentzia garrantzitsuagoa bilakatzen ari da herritarrentzat. Txartel bakarraren integrazioari dagokionean, Irun eta Donostia sartu izana pausu garrantzitsua izan da. RENFE eta EUSKOTREN ere urte bukaera baino lehen txartel bakarrean integratzeko urratsak ematen ari gara.

Lurralde oreka eta garapenerako baldintza gutxien dituzten eskualde eta herriei laguntzeko estrategian, Landagipuzkoa 32 programak aurrera jarraitzen du. Egitasmo honek lan erritmo ona hartu du: Ura eta Bideak konpontzeko diru laguntzak banatzeko oinarri arautzaileak eta erabilera anitzeko diru laguntzak arautzen dituen Foru Dekretua argitaratu dira eta udalek aurkeztu dituzte euren proiektuak.

Ur horniduran 18 proiektu onartu dira eta bide konponketetan 34. Erabilera anitzeko azpiegituretarako diru laguntzen kudeaketa berritzailea ere martxan jarri da. 47 proiektu aurkeztu dira eta 39 onartu dira inbertsio planak egiteko. Aipatu behar da gainera 1000 biztanle azpiko 32 herrietako bakoitzean, gutxienez proiektu bat onartu dela. 10 proiekturen obrak hasita egongo dira urtea amaitu aurretik.

Ezin dugu alde batera utzi, ezta ere, nekazaritzak bizi duen krisialdia eta bereziki esnearen sektorea bizitzen ari den egoera kezkaigarria. Foru Aldundiak ahalegin guztia egingo du egoera honi erantzuteko.

Lurraldearen garapenerako hirugarren lan ildoak kultura eta euskara biltzen ditu. Foru Aldundiak aurtengo urtean ere jarduera emankorra izan du. Ohikoa dugun legez, sorkuntza, prestakuntza, kultur programazioa bultzatzen jarraitu dugu; baina horrezaz gain, legealdirako ezarri genituen proiektuekin aurrera dihardugu.

Tabakaleran bi erronka nagusi ditugu une honetan; alde batetik proiektu orokorra zehatzago landu eta bestetik, proiektuaren garapenak eskatzen duen kudeaketa plana ezarri. Bestalde, Tabakalerak 2009ko abenduan itxiko ditu ateak onartuta dagoen arkitektura proiektuaren exekuzioari ekin ahal izateko.

Aldundiak Tabakaleraren alde egiten duen apustuaren oinarrian, lurraldearen garapenerako eduki kulturalen sorkuntzak, ekoizpenak eta hedapenak duten garrantzia dago. Tabakalera ez da kultur proiektu berezi bat soilik; herri garapenerako tresna garrantzitsua baizik.

Bide beretik, Aldundiarentzat estrategikoa da Gipuzkoa 2.0ren inguruan burutzen ari garen lana. Une honetan, Foru Aldundiak sortutako edukien gizarteratzea Interneten bidez lantzen ari gara.

Euskaldunon kulturaz eta nortasunaz hitz egitean ezinbestekoa da ondareari eta euskarari buruzko aipamena egitea.

Herri baten etorkizuneko bideak egiteko iragana ezin da ahaztu: gogoratzea, jasotzea, jabetzea eta gure bizitzan ere txertatzea. Horregatik urtez urte zaharberritzen ditugu hainbat eliza, ermita, jauregi eta abar. Baina baita ere ondare arkeologikoa eta ukitu ezina den ondarea: ohiturak, abestiak, folklorea eta abar. "Gorde eta zabal zazu" hau da gure leloa. Gaur adibide bakarra aipatuko dut: Gipuzkoako ondarea jasoko duen Gordailua. 2010a bukatu eta 2011an funtzionamenduan izango dena.

Euskararen erabilera oraindik erronka ikaragarria da gure herrian. Gipuzkoako Foru Aldunditik ahalegin berezia egiten ari gara euskarak espazio publikoan bere lekua indartu dezan. Euskarak ekintza positiboa behar du. Gai honen kudeaketa politikoari dagokionean zerbait adierazi nahi nuke: ez dut, ez dugu sekula onartuko euskararen presentzia murriztea suposatzen duen neurririk. Alderdi Sozialistak eta Partidu Popularrak ezarri duten lankidetzak euskarari ez dio dagokion duintasuna eskaintzen hitzaldi politikoan; ez dute euskara bultzatzeko jarrerarik adierazten eta herri honetako zenbait gune estrategikotan euskararen presentzia bermatzeko neurriak ez hartzea herri honen integrazioari eraso egitea da. Gai honetan gure jarrera zorrotza izango da; geure buruarekin eta besteekin ere bai.

Euskararen alorrean, 2008an eta 2009an Aldundiaren Kudeaketa Planak jasotzen dituen helburuak erdiesteko, ekintzak bideratu dira alde batetik eta bestetik, aurreko legealdian burutu gabe gelditu ziren hainbat proiektu garrantzitsu berbideratzen saiatu gara, besteak beste, Mintzola eta Ipupomamua. Lehenengoari dagokionez, Subijana Etxearen zaharberritze lanak 2008ko ekainean amaitu eta berehala Mintzola egitasmoari ekin genion (Fundazioa 2008ko abenduan sortu zen). Bigarrenari dagokionez eta 2008an Asteasuko Udalak Ipupomamua proiektuari uko egiteko erabakia hartu ondoren, azpiegitura sendo eta iraunkor bat prestatzeko lanean buru belarri gabiltza.

Administrazioari dagokionez, ahalegin handia egin da euskara Foru Aldundiaren lan hizkuntza bilaka dadin. Horretarako pisuzko hainbat eta hainbat neurri hartu dira. Askoko dago oraindik eta egiteko baina Aldundiko langileen euskara maila eta jarrera txalotzeko modukoa da. Horrezaz gain, maila politikoan ere, euskara da hizkuntza nagusia.

Azpiegitura estrategikoak eta lurralde antolaketa iraunkorra

Gipuzkoak dituen erronka estrategikoen artean azpiegitura estrategikoek berebiziko garrantzia dute gure lurraldearen garapen iraunkorra bultzatu eta etorkizuna ziurtatzeko.

Pasaiako badiaren biziberritzea eta kanpo portua eraikitzea da Gipuzkoak une honetan duen erronkarik handienetakoa. Masterplan bat martxan jarri da eta honek Pasaiaren biziberritzea hobeto planifikatu eta kudeatzeko aukera eskainiko digu.

Pasaialdea biziberritu eta kanpo portua eraikitzeko ekimenak lortu duen garapen mailak, une honetan erakunde guztien artean adostutako ekintza plan zehatz bat mahai gainean jartzea eskatzen du. Kanpo portuak beharko lituzkeen ezaugarrien inguruan erabaki batzuk hartzen hasi beharra dago, portuko agintaritzarekin lankidetzan:

- Une honetan portuan kokatuta dagoen energia sortzeko planta ordezkatzeko duen alternatiba aztertzen hasi behar da.
- Portuak trenbide sare ezberdinekin izan beharko lituzkeen loturak sakonki aztertu eta dagozkion proiektuak enkargatu behar dira.
- Lezo-Gaintxurizketa korridorearen ordenazio proposamena burutu behar da kanpo portuari logistika gune bat eskaintzeko. Gai horietan, erakunde ezberdinekiko lankidetzan, erabateko erabakiak hartzeko garaia iritsi da. Foru Aldundiak proposamen zehatzak egingo ditu lankidetzan horren testuinguruan.

Masterplanaren aurreproiektua 2010eko urrirako dago aurreikusita. Barne portuko espazioa antolatzeko irizpide eta helburuak Portuko agintaritzarekin lankidetzan zehaztea ezinbestekoa da. Gure ustez, proiektu osoaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Portu Agintaritzaren arteko lankidetzan burutu beharko litzateke.

Gipuzkoak epe ertainean izango duen azpiegitura estrategiko garrantzitsuenetako bat Euskal Y-koa izango da zalantzarik gabe. Azpiegitura hau 2015erako martxan egotea espero da. Beraz, ezinbestekoa da eraikuntzaz gain beste gai batzuk ere aztertzen joatea: zerbitzuak, Europara konexio, Nafarroarekiko konexioa nola garatuko den eta zer ondorio izango dituen Ezkio-Itxason, Donostiatik nola pasako den, kanpo portuarekin izango lukeen lotura eta abar. Abiadura Handiko Trenak bere inguruan beharrezko dituen izaera ezberdineko zerbitzuen azterketa egitea ezinbestekoa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak lan honi ekingo dio, baita ere, gainontzeko erakundeekiko lankidetzan.

Mugikortasunaren etorkizunari buruz hitz egitean, ezinbestekoa da trenari buruz hitz egitea. Gipuzkoa Aurrerak Gipuzkoako mugikortasunari tren ikuspegi batetik eman beharreko erantzuna aztertzeko proiektu bat enkargatu du. Proiektu horretan bereziki aztertuko da Gipuzkoako biztanleria gehien kokatuta dagoen Donostia eta Irun arteko espazioa. Proiektu hau, Eusko Jaurlaritzako garraio arduradunekin partekatuko, dugu guztion artean irtenbiderik egokienak gauzatzeko.

Azpiegitura estrategikoekin jarraituz, Hondarribiko aireportuari buruz ere bi hitz esan nahi nituzke. Pistaren egokitzearen eztabaida amaituta, beharrezkoa dugu aireportuak eskaintzen dituen zerbitzuetan sakontzea eta beste hegazkin enpresa batzuek geureganatzea. Horretarako ahaleginean ari gara ORTZIBIAREN barruan.

Aldundiaren ardurapean kokatzen diren azpiegitura garrantzitsuenak bide azpiegiturak dira; eta horietan azpimarragarriena ahalmen handiko errepide sarea da. Gipuzkoako biribilgunea osatzerako garaian AP-1 ireki izana urrats handia izan da.

Biribilgune hori osatzeko geratzen diren errepide gehienak eraikitzen ari gara une honetan. Aurten amaitu dira Aritzetatik Oriora hirugarren erraia eraikitze lanak. AP-8 erabat berritu da zati honetan.

Donostiako bigarren ingurubidea ere garrantzi handiko azpiegitura dugu; egunean 120.000 ibilgailu jasaten dituen Donostiako saihsbideari erantzuna emango diona. Lanak aurrera dihardute erritmo onean eta datorren urtean errepide hau gipuzkoarron zerbitzura izango dugu.

Urumeako Saihsbideari dagokionean, errepide berri honek N-1ek Donostiatik Andoainera duen trafiko altuari erantzungo dio eta, gure aurreikuspenen arabera, datorren urtean amaituko da.

N-1 errepideari dagokionean, errepide honen inguruan bi proiektu nagusi daude: bata, Andoaingo saihsbidea; eta bestea Etxegarateko tunelak. Bi proiektuak idazketa fasean daude.

Bestalde, Gantxurizketako lanak aurreko urtearen urriaren 2an amaitu ziren eta Irungo Katea eta Osinbiribil arteko N-1 errepidea bikoizteko proiektua idazte prozesuan da. Hurrengo urtean hasiko dira lanak.

632 errepideari (Beasain-Bergara) dagokionean, Urretxu eta Bergara arteko zatiaren proiektua idatzita dago jadanik eta krisiaren aurkako egitasmoan adierazi dugun bezala, datorren urtean ekingo diegu lanei.

Donostiako sarbideak aurrera doaz: Herrera-Intxaurrondo lotura apirilaren 3an ireki zen eta Zorroagako eta AP-8-Ospitaleak aurrera doaz.

Une honetan eskuartean dugun erronkarik handienetako bat errepide sare honen kudeatzeko sistema ezartzea da. Aurreko urtean, Batzar Nagusi hauetan eztabaida hori irekitzeko garaia heldua zela adierazi eta horretarako ponentzia bat eratu zedila eskatu genuen. Ponentzia hori

jadanik eratuta dago, nahiz eta bere lanen erritmoa ez den nahi bezain azkarra izan. Epe laburrean izango ditugu ondorioak eta kudeaketa sistema berria ahalik eta azkarren ezartzea da gure helburua.

Ahalmen handikoa ez den sare nagusiari dagokionean, lanean dihardugu proiektu ezberdinekin: Mutriku-Sasiola, Azkoitia-Urretxu, aireportuko bidearen zabaltzea, Orioko saihebiderearen bigarren fasea, Eibar eta Zarautzko saihebidereak eta abar.

Azken errepide aipagarria N-121-A da. Irundik Endarlatsara bitartekoa, Nafarroan jarraipena duena. Errepide oso arriskutsua izan denari alternatiba eskaini dion errepide berria ekainaren 26an ireki genuen.

Ongizate sistema eta gizarte politika

Gipuzkoako Foru Aldundiak duen eginkizunik garrantzitsuenetako bat gizarte politikak dira zalantzarik gabe. Gaur egun, hileroko 7.000 pertsona baino gehiago ari dira jasotzen mendekotasun legearen diru laguntzak Gipuzkoan; hau da, ehun herritarretik batek jasotzen ditu. Harro gaude Gipuzkoak alor honetan eskaintzen duen babes mailarekin.

Adinekoentzako ekipamendu berriei dagokionean, Lazkao, Zumarraga, Zumaia eta Aretxabaletan egoitza berriak ireki dira. Eta handitu egin ditugu Legazpi, Azpeitia, Mutriku, Beasain, Segura eta Andoaingoak. Gaur egun Gipuzkoan 5.300 plaza ditugu guztira (166 aurten irekitakoak), eta % 85 Aldundiaren sare publikoan dago, hots, kontzertatuak daude.

Eguneko zentro berriak ireki ditugu Antzuola, Donostia, Lazkao, Zumarraga eta Aretxabaletan, eta handitu egin ditugu Azpeitia, Oñati eta Elgoibarkoak. Halaber, plaza gehiago hitzartu ditugu lehendik zeuden zentroetan. Gaur egun Gipuzkoan 1.520 plaza ditugu guztira (24 plaza aurten irekitakoak), eta % 88 Aldundiaren sare publikoan dago.

Azpimarratu nahi nuke zerbitzu sozio-sanitarioa emateko modulu bat sortu dugula Zumarragan, Osasun sailarekin elkarlanean. Modulu honek Donostian dagoeneko zegoen zerbitzua lurraldera zabaltzen hastea du helburu.

Azkenik, unitate psiko-geriatrikoak zabaltzeko gure plangintza aurrera doa. Urte hau bukatzerakoan 30 izango ditugu martxan.

Elbarritasun eta gaixotasun mentalaren alorrean, ASPACEren egoitza eta eguneko zentroa sortu dugu Arrasaten eta Uliazpi Fundazioak ezaugarri bertsuko zerbitzua sortu du Donostiako Ategorrietan.

Gaixotasun mentalari dagokionez, Legorretan eta Donostian zerbitzu berriak sortu ditugu, eta Beasainen Goierriko eskualdeari erantzuna emango dion eguneko zentroa ireki dugu. Honek, 35 egoitza plaza suposatzen ditu, eta eguneko zentroko 20 plaza.

Etxetek zerbitzuari dagokionean, laguntza teknikoak eta etxebizitzaren egokipenak sustatzen dituen programa hau bereziki indartu dugu bai aurrekontu aldetik eta bai zerbitzu aldetik.

Gizarte politikaren alorrean burutu ditugun beste ekimen batzuk ere ez nituzke aipatu gabe utzi nahi:

- Oinarrizko Errentarako baldintzak betetzen ez dituzten egoerak babesteko, diru laguntza berri bat arautu dugu orain gutxi.
- Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuaren ordutegia indartu dugu, 24 orduetara pasaz.
- Tratu txarrak jasandako emakumeentzat lurralde Zentroa sortu dugu.
- Gazteen gizarteratzea bultzatzeko LORTUZ programa indartu dugu, 31 plaza gehiago sortuz.
- SAIATU proiektua martxan jarri dugu, gizarte ekimeneko esparruan enpresak sortu ahal izateko egitura bermatuko duena, aholkularitza eta formazioa eskainiz.

Bestalde, krisi egoera honetan gure babes sistemaren garrantzia azpimarratu nahi nuke, gutxienerako diru sarrerak bermatzeko; Oinarrizko errentak 7.264 gipuzkoar babesten ditu gaur egun.

Aldundiaren ardura nagusienetakoa adingabeen babesa da. Urtean 1.500 adingabek jasotzen dute era bateko edo besteko babesa edo laguntza, eta horietatik 221 atzerritarrak dira. Aurten atzerritar adingabeentzat 60 plaza berri sortu ditugu. Beste erakundeekin koordinazioa eta lankidetzaren estutu egin dugu, sortu diren arazoei eraginkortasunez aurre egiteko; izan ere arazo horiek konpontzeko erakunde ezberdinen inplikazioa ezinbestekoa baita.

Epe labur eta ertaineko helburuei dagokionean, Gizarte Zerbitzuen II. Mapa gauzatzen jarraitu behar dugu. Erronka handia daukagu udalen egoitzak geureganatzeko urratsari dagokionean bereziki. Udalekiko lankidetzaren garatu beharreko prozesua da zalantzarik gabe eta horretan ari gara.

Garapen iraunkorra

Foru Aldundia garapen iraunkorraren alde egiten ari den apustua aipatzea ezinbestekoa da alor ezberdinetan.

Hondakinen gaia bideratuta dago. Hondakinen Foru Araua abenduaren 23an onartu genuen gehiengo zabalez Batzar Nagusi hauetan eta Lurralde Plan Sektoriala Gipuzkoako Foru Aldundiak aurtengo uztailaren 21ean onartu zuen. Oraindik, lan sakona geratzen da Gipuzkoako hondakinen zentroa eraikitzeko baina zalantzarik gabe, gaia bideratuta dago.

40 urteren ondoren, urriaren 13an San Markoseko zabortegia itxi zen. Bestalde, 2009. urtean konpostaiaren aldeko apustu garrantzitsua egin dugu. Lapatxen esperientzia pilotu bat gauzatzen ari gara, datorren urtean hondakin organikoen bilketa herri guztietara eraman nahi dugularik.

Iraunkortasunaren alorrean energia berriztagarrien aldeko apustuan Fotovoltaikoen egitasmoa jarri dugu martxan (Elgoibar, Zarautz, Oñati eta Zegaman esperientzia pilotoak) eta lurraldearen iraunkortasun energetikoaren egitasmoa lantzen ari gara.

Eraikuntza hidraulikoei dagokionean, bi ekintza esanguratsu aipatu nahi nituzke soilik. Alde batetik, IBIURko araztegiaren amaiera eta bestik Adunako araztegia egiteko obra hasiera.

Iraunkortasunaren aldeko apustuan azkenik Gipuzkoako mendi eta naturaren alorrean eginiko lana aipatu nahiko nuke. Mendien kudeaketarekin zerikusia duten proiektu berritzaileak jarri dira martxan: LIFE Aiako Harria edota Aralar eta Aizkorri mendiko larreak kudeatzeko egitasmoak. Lehenengo aldiz udalek Parke Naturaletan dituzten ekimen ezberdinetarako diru laguntzak atera dira. Esan behar da, Gipuzkoako Parke Naturalen kudeaketarako antolaketa berri bat lantzen ari garela. Gipuzkoako Parketxeen Sarea Fundazioa sortu dugu eta Parke Naturaletan ekintza ezberdinak garatu dira: Iturrran, Arditurri, Lizarrusti, Arantzazun eta abar.

Kirola

Gipuzkoako Foru Aldundian egiten ari garen kudeaketan bada gizartean garrantzi handia duen gai bat: kirola. 2009. urtean legealdiko kirol ekipamenduen plana martxan jarri dugu. Ikuskizun kirolarekin lotutako laguntzak arautu, onartu eta banatu ditugu. Bestalde, kirol zerbitzuek eskaintzen dituzten entitateen artean, kalitate sistemak ezartzeko metodologia jorratu eta zabaldu dugu Eusko Jaurlaritzan, Bizkaiko eta Arabako Aldundiekin batera.

Etorkizuneko kirolarientzako "Eutsi kirolari" programa martxan jarri dugu arlo ezberdinetan laguntza eskainiz. Bestalde, Kirolaren gazte planaren hedapena egin dugu 12-18 urteko gazteentzako udal, klub eta federazioekin batera.

2010. urtera begira planteatu ditugun helburuetan honoko hiru puntu hauek azpimarratuko nituzke bereziki:

- Kirol ekipamenduen arloko planaren aurrerapena amaitu nahi dugu.
- Etorkinen integrazioa bultzatzeko eskola kirolean eta kirolaren beste arloetan ahalegin berezia egingo dugu.
- Gipuzkoako kirol txartela 2011. urtean errealitate bilakatu dadin, prestakuntza prozesua jorratuko dugu.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa kultura politiko berriaren balioetan oinarritzen da. Atal hau bukatzeko gure herri politika guztietan oin hartzen duten bi balioez hitz egin nahi nuke. Berdintasunaz eta elkartasunaz. Legealdi hasieran gipuzkoarron aurrean bi konpromezu hartu nituen:

- Alde batetik, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren alde lan egingo genuela eta,
- Bestetik, gure herri politiketan herritarren kultura eta giza balioak bultzatuko genituela. Herri baten garapenean azpiegiturak egitea bezain garrantzitsua da gure jokabidea baldintzatzen duten kultura eta balioak.

Berdintasunaren aldeko herri politiken ikuspegitik legealdi honetan zutabe garrantzizkoak ezartzen ari gara. Abenduan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko foru egitasmoa onartu genuen. Egitasmo hau oinarritzko tresna da gure politikak ezartzerako garaian. Aipaturiko egitasmo hau bitarteko, egitura ezberdinak sortu ditugu: berdintasunerako zuzendaritzaren egitura, Aldundiko departamentu ezberdinen arteko lankidetzaren eremuak eta berdintasunaren aldeko lanean diharduten emakume elkarteek osaturiko foroa. Lan handia egiten ari da berdintasuneko zuzendaritza eta bide horretatik jarraitu behar dugu.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2010. urtera begira elkartasunaren eta konpromezuaren balioak sustatzeko ekimen ezberdinak jarriko ditu martxan. Urtea amaitu aurretik, Batzar Nagusi hauetan aurkeztuko ditut gizarte arduraren alorrean bultzatuko ditugun ekimen ezberdinak.

EGOERA POLITIKOAREN AZTERKETA

Mintzaldiaren hasieran esan dut Eusko Jaurlaritzan gertatu den aldaketaren ostean aro politiko berri batean sartuak gaudela.

Hasiera-hasieratik, diputatu nagusi naizen aldetik, nir jarrera izan da bi erakundeon arteko lankidetzat leiala bilatzea, kudeaketaren ikuspegitik gure lurralderantzat lehentasunezko diren arazo guztietan.

Alabaina, azterketa politiko bat eginez, ezin dut alde batera utzi Gobernu aldaketaren arrazoi nagusia izan dela abertzaleak erakundeetatik kanpora uzteko borondate irmoa. Espainiar konstituzionalismoa ez dago prest euskal gatazkari bere erro sakonak aitortzeko: euskal herria bere etorkizuna erabakitzeko gai den subjektu politikotzat ez onartzea. Errealitate horri aurre egiteko goratasun demokratikoa eskas da gure artean. Estatuarentzat, hemen dagoen gatazka bakarra ETaren terrorismoa da, eta haren aurka borrokatzeko —horretan denak bat gatoz— demokraziaren tresna guztiak erabili behar dira.

Estatuarentzat, euskal herriaren erakunde antolamendua erabakitzeko eskubidea era demokratikoan defendatzea demokraziaren eta espainiar nazioari batasuna ematen dion erakunde arkitekturaren aurkako ekintza bat da, demokratikotzat jotzen baitituzte soil-soilik espainiar burujabetzak sortutako egitura politiko konstituzionalak.

2001ean gertatu zen euskal abertzaletasun instituzionalari buruz Estatuak zuen diskurtsoaren aldaketa kualitatiboa: euskal herriak erabakitzeko eskubidearen alde egiten dutenek, zehar bidez, ETaren indarkeria legitimatzen dutela diote.

Irudikatze frentista bat da hori, gizarte aurreratu eta konplexuetako kultura demokratikoak eskatzen duen aniztasunaren eta integrazio ikuspegiaren aurkakoa. Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak abertzaletasun instituzionala iraganarekin eta zatiketarekin berdindu nahi dute, hedabide batzuen zitalkeriak lagundurik. Ez daukat inolako zalantzarik operazio horren helburu nagusietako bat dela euskal herritarrak bergizarteratzea, kontraera politiko berri bat erakundeetara eramanez, lehenik, eta gizartean finkaraziz, geroago. Diseinatu duten eraldatze sakon horren osagai nagusiak hedabideen bizkar daude.

Egia aitortu behar badut, Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Popularraren jokabide horrek ez nau batere harritzen. Hori esanik, guztiz sinetsirik nago, ordea, herri honek ez dituela bere nahikunde legitimoak bazterrean utziko, ez duela ukatuko aniztasunean oinarritutako kultura demokratikoa, eta bilatuko dituela estrategia egokiak borondate demokratiko horri bidea

aurkitzeko. Gobernu berriaren soinekoa estuegia da Euskadirentzat, estuegi gaur, estuago etorkizunerako.

Nire ikuspegiz, euskal herriak erabakitzekeo eskubidea duela uste dugun arduradun politiko nahiz instituzionalak behartuta gaude borondate horri bide demokratikoren bat aurkitzera. Uste dut nahitaezkoa dela errealitate horren aurrean era guztiz demokratikoaz zutitzea.

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria bere kargutik kendu zuten proposamen berri bat plazaratu zuelako Euskadiren eta Espainiaren arteko harremanetan, erabakitzekeo eskubidearen oinarrian; baina operazio hori bideratu ahal izan da ezker abertzalea legez kanpo utzi dutelako.

Zinez esaten dizuet Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Popularraren estrategia ez dela errotuko herri honetan. Euskal arazoa konpondu nahi baldin bada, lehenik aitortu egin behar da, erabakitzekeo eskubidearen inguruko adostasun bat bilatu behar da, ulertu beharra dago benetako aniztasunak eskatzen duela alde bakarreko ikuspegiak eraiki dituen uniformetasunak bazter uztea.

Eusko Jaurlaritza berriak aldaketak eragin ditu hedabide publikoetan, hezkuntza sisteman egiturazko aldaketak sartu nahi ditu, Espainiako gobernuarekiko harremanetan ez du herri baten interesen alde jokatzeko, baizik Estatuaren gobernuaren alde bakarreko erabakiei amore emateko gauza den gobernu autonomiko gisa.

Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularra gogotik ari dira saiatzen euskal nortasuna urardotzen, autonomia erkidego arrunt bat bihurtu dadin, estatu bateratu baten barruko administrazio gune deszentralizatu baten antzeko zerbait, eta ez nazio baten proiektuan oinarri harturik autogobernu maila handiago bat nahi duen herri bat. Ez dezagun ahaztu: Euskadi, Euskal Herria nazio bat da, Espainia den bezala. Ez daiteke onartu Madrilen agintzen duen alderdiaren interesen mende egotea Euskadi. Enplegu politika aktiboen transferentzia ahalegin horren adibide ederra da.

Beste eragilerekin lotzen ditugun harremanen baldintzetan erakutsi ohi dugu zein irudi dugun geronen buruaz. Hala, kanpo ekintzen esparruan, merkataritzaren esparruko euskal ordezkarietaz bereziki, gertatzen ari den eraldaketak oso ongi erakusten du bi alderdi politiko horiek borondate garbi eta irmoa dutela Euskadi maila apalagoko erkidego bat bihurtzeko.

Guztiz sinetsirik nago euskal gizartea altxatu egingo dela eraspen prozesu planifikatu eta aktibo hori ikusarazten doan neurrian. Prozesu hori euskal herriaren nortasunaren eta aniztasunaren aurkako eraso bat izateaz gain, eragin zuzena du gure autogobernuaren

kudeaketan, gure erakunde sistemak izan behar duen autoeskakizun mailan, gero eta gaitasun handiago izan dezagun geure etorkizuna erabakitzeke eta geure arazoak kudeatzeko.

Herri batek ez dio bere erabakimenari uko egingo gobernu aldaketa baten egoera soilagatik. Gobernua aldatu baita, baina, zorionez, herria ez da aldatu.

Politika horren aldean, nire ardurapean den gobernuaren eginkizuna zeharo bestelakoa da. Euskal herriak erabakitzeke eskubidearen aldeko jarrera garbia daukagu, euskal gizartearen borondatea errespetatzearen aldeko jarrera garbia daukagu; gure etorkizuna euskal erakundeetatik eraiki nahi dugu, gure nortasuna garatu nahi dugu mundu globalizatuan. Horretarako, gure erakundeen sistema indartu beharra dago, politika publikoetan herri dinamikak sortu behar dira, eta iritziz publikoaren gune propio bat sendotu beharra dago.

Hitz labur batzuk esan nahi nituzke, baita ere, ezker abertzaleaz nahiz ETAz Estatuak duen politikari buruz. Ezker abertzalea legez kanpo uzteak gabezia demokratiko bat erakusten du. Ezker abertzalea erakundeetatik kanporatuta ere, ezker abertzaleak izaten jarraituko du, ETAk izaten jarraituko du. Gehiago ere bai: ezker abertzalea legez kanpo utzita, zailago izango da hura demokraziara ekartzea, ETAren indarkeriarekiko loturak hautsiz.

Uste dut adimenez erantzun beharra dagoela sortu den aldaketa horren aurrean. Nire ustez, etorkizunari heldu nahi badiogu, gutxienez bost kontu aztertu behar dira:

Lehenik, Euskadi herri eta nazio gisa indartu behar da. Guztiz beharrezkoa da euskal erakundeok, gizarte eragileek, eragile ekonomikoek, aintzat hartzea Euskadi herri gisa indartzeko konpromisoa aintzat hartzea. Euskal nortasuna urardotzeko ahaleginen aurrean, sozializatzeko prozesu berriak zabaldu behar dira, indartze hori egiteko kultura politiko demokratiko aurreratu eta europar baten bidez.

Bigarrenik, ETARI aurre egiteko adostasuna eta babes etikoa bilatu behar dira. ETAk eraso egiten dio ez bakarrik gizakiari duintasunari, baizik herriaren borondate demokratikoa errespetatzeak esan nahi duen guztiari. Azpimarratu behar dugu biktimak direla gehien sufritu dutenak. Biktimak, familiak eta ingurukoak. Bidegabekeria hori aitortu beharra daukagu, zalantzarako zirrikiturik utzi gabe, eta gure laguntza guztia eman, oinaze konponezin horri aurre egiteko. Biktimek jakin behar dute haien ondoan gaituztela. Biktimen laguntza (biktima guztiena, ez bakarrik ETAren biktimena) gizarte osoarekiko gizalegezko erantzukizunaren eginbehar bat da; gizarteak erreferentzia etiko argiak izan behar ditu, gure kultura demokratikoa indartu nahi badugu.

Alabaina, biktimen aitorpena erabatekoa izango da, soil-soilik, esparru etiko partekatu batean egiten bada. Euskal gizarteak ez du onartuko biktimen aldeko jarrera etikorik edo aitorpen moralik, jarrera hori tesi politiko jakin batzuen aldeko tresnakeriaz erabili nahi baldin bada. Arrisku hori bene-benetakoa da, eta uste dut denok ihes egin behar geniokeela tentaldi horri.

Biktimen arazoetan denok egon behar dugu bat eginik; baina denok batera egoteko, jarrera etikoa guztiz babesturik egon behar da, alderdikeriazko ikuspegi politikoetatik guztiz urrundurik. Arduradun politikoak beharturik gaude bakearen alde lan egitera, giza eskubide guztien errespetuaren alde, eta terrorismoaren biktima guztien aitorpenaren eta oroitzapenaren alde. Horregatik, adierazi nahi dizuet urriaren hasieran Gipuzkoako Batzar Nagusi hauen aurrera ekarriko dudala bakearen aldeko eta terrorismoaren biktimen oroimena indartzeko plan bat. Plan hori Eusko Jaurlaritzarekin batera ari gara garatzen, Biktimen Zuzendaritzaren bitartez; Juan Jose Ibarretxe lehendakari zela hasi zen, eta oraingo gobernuarekin jarraitzen du.

Bestalde, ETaren indarkeriak zatiketa eta desitxuratzea eragin du gure artean, erabakitze eskubidearen aldeko estrategia demokratiko bat erakundeetan finkatzeko prozesua eragotziz. Erabakitze eskubidearen aldeko gune bat ikuspegi estrategiko batez eraiki nahi baldin badugu, jarrera etiko tinko bat behar dugu, herri gisa aurrera egitekotan kode etiko ukaezin bezain zorrotz batez egingo baitugu aurrera.

Hirugarrenik, erabakitze eskubidea indartu behar da gizartean. Aldaketa politikoak ez gaitu geldiaraziko; horretarako, lehentasunezko helburua izan behar da gizarte zibilaren barruan erabaki eskubidearen irizpidea indartzea, bai gizarte antolatua barruan, bai erakundeen sistemaren barruan; izan ere, indartze horretan oinarritu beharko dugu hurrengo urteetan euskal herriari eskubide hori aitortzea lortu nahi badugu, baldintza errealistatan.

Euskal herriak eskubide horren inguruan duen borondate politikoa uhin dinamiko bat bihurtu behar dugu, euskal erakundeen eta Estatuaren erakunden arteko adostasuna eraldatu eta baldintzatzeko adinakoa.

Laugarrenik, eragile politikoen eta sozialen artean lan partekatu bat egin behar da erabakitze eskubidearen alde. Gaur egun esparru hori politikoki oso banatua ageri da, oso gaitasun mugatua du herri proiektuaren bidean aurrera egitearren garabide berriak sortzeko. Lankidetzeta eta elkarlan sare berriak eratu behar dira, alderdi politikoek gizartearen esparru guztietan dituzten harremanez gain. Bide horretan adostasunik gauzatzeko, gizarte osoaren indartzea lortu behar dugu.

Eta bosgarrenik, euskal gizartearekiko harremana sendotu behar dugu. Euskal gizarteren kultura politikoa errotik ari da eraldatzen. Herritarrek gero eta harreman urrunagokoa dute politikaren munduarekin, eta horrek guztiz eraldatzen du euskal herritarren nortasun politiko nahiz kulturala. Politika egiteko gaur egun bizi ditugun baldintza sozialen indarrez, eguneratze estrategiko bat abiarazi behar dugu, erkidego proiektu erakargarri eta modernoak eraikitzeko; partaidetza gune zabal bat sortu behar dugu, segurtasuna eta askatasuna emango diguna, eta aldi berean gure nortasun banakako nahiz taldekoa garatzeko aukera emango diguna. Horretarako, alderdi politikoen esparrua ere zabaldu beharra dago, arlo berrietan lan sakonagoa eginez: gizarte antolamenduak, ekonomiaren mundukoak, gure eguneroko bizitza ehuntzen duten sare sozialak, eta abar.

Mintzaldia amaitzera noa. Bi urte hauetan zehar, une trinkoak, ilusio handikoak, pozaldiak bizi izan ditugu, baita une latzak ere. Isaias Carrascoren eta Inaxio Uriaren hilketak izan dira, zalantzarik gabe, unerik mingarrienak niretzat eta herritar gehien-gehienetzat. Nire indar guztiaz gaitzetsi nahi ditut ETAK egindako hilketa lazgarri horiek, eta nire elkartasuna eta maitasuna adierazi nahi diet biktimen familiartekoei. Jakin behar dute bakearen alde lan egingo dudala, eta haien oroimena bizirik iraunarazteko nire esku den guztia egingo dudala.

Jarduera publiko guztietan, batzuetan asmatzen da, besteetan huts egiten da. Barkamena eskatu nahi dut espero bezala ari izan ez naizen arazo guztiengatik, eta eskerrak eman nahi dizkiet Gipuzkoako Foru Aldundia osatzen duten langile guztiei, egiten duten lan saiatiugatik. egunez egun, Gipuzkoa hobe baten alde saiatzen den giza katea luze baten begi bat besterik ez naiz ni; jakizue gutxiena dutenak daudela nire kezka guztien erdigunean.

Eskerrik asko.